BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILA

1947

AGINDUA, 2014ko apirilaren 10ekoa, Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuarena, Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurraldearen Zatiko Planaren aldaketari hasierako onarpena ematen diona, Jundiz-Billodako intermodal logistikoa eraikitzeko.

1.– Abenduaren 28ko 277/2004 Dekretuaren bidez onartu zen behin betiko Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurraldearen Zatiko Plana (LZP), eta plan horrek antolamendu integrala egin du eremu funtzional osorako, eta honako udalerri hauek sartzen dira: Alegría-Dulantzi, Armiñon, Arraia-Maeztu, Arrazua-Ubarrundia, Asparrena, Barrundia, Berantevilla, Bernedo, Kanpezu, Zigoitia, Kuartango, Burgelu, Iruña Oka, Iruraitz-Gauna, Lagran, Lantarón, Legutio, Otxandio, Peñacerrada-Urizaharra, Erribera Beitia, Erriberagoitia, Añana, Agurain, Donemiliaga, Ubide, Urkabustaiz, Gaubea, Harana, Vitoria-Gasteiz, Zalduondo, Zanbrana, Zuia, baita Badaiako mendilerroa, Entziako partzuergoa, Peñacerrada-Urizaharra, Lagran eta Laño ere.

2.– Sustapen Ministerioak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak lankidetza-protokoloa dute sinatuta, Salgaien Trenbideko Garraioa Bultzatzeko Plan Estrategikoko salgaien oinarrizko sarean sartuta dauden terminal logistiko intermodalak garatzeko. Protokolo horren xedea da administrazio bion arteko lankidetza bideratzea, Jundiz eta Lezoko terminal logistiko intermodalak garatzeko; horiek Espainiako Salgaien Trenbideko Garraioa Bultzatzeko Plan Estrategikoko salgaien oinarrizko sarean sartuta daude.

3.– 2012ko uztailean, Eusko Jaurlaritzako garai hartako Lurralde Antolamenduko Zuzendaritza eta Garraio Azpiegituren Zuzendaritzak (egun Ingurumen eta Lurralde Politika Sailean) sustatu zuten aldaketa honen idazketa; aldaketaren xede nagusia Vitoria-Gasteizen eta Iruña Okan erabilera logistikoetarako eremua gordetzea da, Jundiz-Billodako terminal intermodala eraikitzeko. Eremu hori Vitoria-Gasteizko hiri eremuaren mendebaldean dago, eta bat dator egungo trenbide-trazatuak mugatutako eremuarekin (iberiar zabalerakoa), eta abiadura handiko eta nazioarteko zabalerako geroko trenbide-trazatuarekin. Eremuak 45,69 ha ditu; eta horietatik, 28,26 Iruña Okan daude eta 17,43, Vitoria-Gasteizen.

4.– Aldaketaren izapidetza prozedurari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamenduari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legearen 10.10 artikuluan, lege horren 14. artikuluan ezartzen denez, Lurraldearen Zatiko Planetan egin nahi diren aldaketak Eusko Jaurlaritzak ezarritako prozedurari jarraiki egingo dira, baldin eta plan horien berrikusketa orokorra edo funtsezkorik eskatzen ez badute. Arau hori garatzeko, Lurraldearen Antolamendurako Artezpideen, Lurraldearen Zatiko Planen eta Lurraldearen Arloko Planen funtsezkoak ez diren aldaketak onartzeko prozedura arautzen duen irailaren 9ko 206/2003 Dekretua egin zen.

5.– Ildo horretatik, adierazi behar da Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren 2012ko ekainaren 11ko Aginduaren bidez adierazi zen aldaketa ez zela funtsezkoa; beraz, berori onartzeko prozedura 206/2003 Dekretuaren 4. artikuluan jasotzen da.

6.– Ingurumen prozeduraren izapidetzari dagokionez, Ingurumen Sailburuordetzaren 2012ko irailaren 27ko Ebazpenaren bidez, erreferentziako agiria eman zen. Horretan, aldaketa horren Ingurumenaren jasangarritasunari buruzko txostenaren norainokoa zehazten zen.

7.– Lurraldearen Zatiko Planaren aldaketak agiri hauexek ditu:

I.– Aldaketaren justifikazio eta azalpen memoria.

II.– Antolamendu-arauak.

III.– Programazioa.

IV.– Antolamendu-planoak.

V.– Ingurumenaren jasangarritasunari buruzko txostena.

8.– Halaber, eta 206/2003 Dekretuaren 4.3 artikuluan adierazitakoaren arabera, martxoaren 12an egin zen 1/2014 osoko bilkurak, Lurralde Antolamendurako Batzordeak aldeko txostena eman dio Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Zatiko Plan hau aldatzeari.

9.– Ondorioz, plana aldatzeko espedienteari hasierako onarpena ematea dagokio. Espediente hori eta dagokion ingurumenaren jasangarritasunari buruzko txostena jendaurrean jarriko dira. Aldi horrekin batera, interesa duten lurralde-administrazio publiko guztientzako entzunaldiaren izapiderako aldia ere irekiko da, alegazioak, oharrak eta iradokizunak aurkeztu ahal izateko.

10.– Hortaz, lehen aipatutakoa ikusita eta Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolakuntzari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legearen 13. artikuluan, eta irailaren 9ko 206/2003 Dekretuaren 4.1 artikuluan jasotako eskumena kontuan izanik, honako hau

XEDATZEN DUT:

1.– Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurraldearen Zatiko Planaren aldaketari hasierako onarpena ematea, Jundiz-Billodako intermodal logistikoa eraikitzeko.

2.– Plana aldatzeko agiria eta dagokion jasangarritasunari buruzko txostena jendaurrean jartzea, 45 egun balioduneko epean agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik zebatzen hasita, interesa duten pertsonek eta elkarteek ondo iritzitako alegazioak aurkeztu ahal izateko. Halaber, iragarkia Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean eta gutxienez Autonomia Erkidegoan hedapen handiena duten bi egunkaritan argitaratu behar da.

Adierazitako epe horretan, herritarrek ikusgai izango dute planaren aldaketaren agiria, bai http://www.ingurumena.net web-orrian bai ondoko leku honetan:

– Eusko Jaurlaritza:

Ingurumen eta Lurralde Politikako Saila.

Lurralde Plangintzaren eta Hirigintzaren Zuzendaritza.

Donostia kalea 1, 2. solairua.

01010 Vitoria-Gasteiz.

3.– Jendaurrean jartzearekin batera, lurralde administrazio publiko guztiei entzunaldia eskaintzen zaie, 45 egun balioduneko epean, planaren aldaketaren inguruko alegazioak, oharrak eta iradokizunak egin ahal izan ditzaten; horretarako, aldaketaren dokumentazioa bidaliko zaie.

Erabaki honen kontra ezin da errekurtsorik aurkeztu, Lurraldearen Zatiko Planaren aldaketa behin betiko onartzeko prozeduraren barruko izapide bat baita.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko apirilaren 10a.

Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburua,
ANA ISABEL OREGI BASTARRIKA.